

# LAKUNTZA

**U**dal aldizkaria

20. zenbakia, 2013ko otsaila

Lege gordailua:  
NA-1458/2003

Argitaratzailea: LAKUNTZAKO UDALA - Herriko plaza z/g - LAKUNTZA 31830 - tel. 948-576 015  
fax 948 567260 - www.lakuntzakoudala.com - posta elektronikoa: info@lakuntzakoudala.com



bidean  
euskararen  
bidean

## Arazoei irtenbidea emanez

2013 urtean erronka handia izango dugu sakandarrok, zaborren kudeaketa berria martxan jartzea, hain zuzen ere. Honengatik, Lakuntzako Udalak buletin berezi hau kaleratu du, informazio zuzena eman eta aldaketaren zergatiak azaltzeko asmoz.

Arazo larria daukagu sortzen dugun hondakinekin, gaur egungo bizimoduan etengabeko kontsumoan murgilduta gaude, erabili eta bota! Hori da ideia. Gainera erosten ari gareneko produktuak kontsumitzeko gure natur baliabideak suntsitzen ari gara.

Ondorioa: gero eta hondakin gehiago eta gure lurra gero eta kutsatuagoa.

Lakuntzar bakoitzak egunean 1,32 kilo hondakin sortzen ditu. Egun daukagun bilketa sistemak goia jo du eta %24a besterik ez dugu birziklatzen. Egunean, beraz, lakuntzarrok bakarrik 1.264 kilo zabor sortzen ditugu.

Sakanako Mankomunitateak otsailean zehar prozesu parte-hartzaile bat jarriko du martxan, herriz herri herritarrek informatu eta zabor bilketa sistema berriaren inguru-

ruan hainbat kontu erabakitzeko. Lakuntzan otsailaren 11n izango da Sakanako Mankomunitateak deitutako lehenengo batzarra. Honetaz gain, Lakuntzako Udalak informazioa helarazteko buletin hau kaleratu eta otsailaren 8an hainbat bilera ere egingo ditu. Guztiak gonbidatuak zaudete deialdi hauetan parte-hartzera!

Gure zaborraren ardura har dezagun!

*Lakuntzako Udala*

*Atez ate: zabor bilketa sistema berria*  
*Puerta a puerta: nuevo sistema de recogida de residuos*



natur baliabideen ustiapena



kontsumoa



zabor pilaketa

## Dando solución a los problemas

Este año las vecinas y vecinos de Sakana tenemos un reto importante: poner en marcha un nuevo sistema de recogida de residuos.

Tenemos un gran problema debido a la gran cantidad de residuos que producimos. Cada persona de Lakuntza genera al día 1,32 kilogramos de residuos y con el sistema actual de recogida sólo se recicla el 24%. Al día se forman 1.264 kilos de materia inservible que está destinada a ser enterrada o incinerada.

En febrero la Mancomunidad de Sakana pondrá en marcha un proceso participativo en las localidades del valle, con el objetivo de informar y decidir sobre numerosas cues-

tiones del nuevo sistema de recogida: cómo recoger los residuos orgánicos, puntos de recogida, zona de emergencia,... La primera asamblea que convocará la Mancomunidad de Sakana en Lakuntza será el 11 de febrero. Pero antes de ésta el Ayuntamiento de Lakuntza ha querido hacer llegar este boletín y también ha organizado varias sesiones informativas que tendrán lugar el 8 de febrero. Os animamos a que acudáis a las sesiones y asambleas que tendrán lugar en Lakuntza.

Debemos ser responsables del residuo que generamos!!

*Ayuntamiento de Lakuntza*





## Zer esaten dute legeek?

**Europar Batasuneko lege eta txostenek** oso zehatz arautzen dute estatuek zein helburu lortu beharko dituzten zaborren kudeaketari dagokionez (2008/98/CE zuzentaraua):

- 2014rako zabortegi guztiak desagertu egin beharko dira.
- 2020rako ezingo dira material birziklagarriak erraustu.
- Europako estatuek bermatu behar dute herri eta hirietan zabor organikoaren %50a (gutxienez) aparte jasotzen hasiko direla.

Bestalde, **Nafarroako Gobernua**, Europako arautegia betearazteko, 2011ko abenduaren 27an Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala onartu zuen (NHKPI/PIGRN). Plan horretan zehazten da herri eta hirietan ZER egin behar den, eta NOLA iritsi helburu horietara:

### ZER HELBURU LORTU BEHAR DUGU NAFARROK?

Zabor organikoaren %50 (gutxienez) aparte jasotzen hasi behar dugu. Eta materia organiko horrek ezin du %10 baino materia desegokirik eduki. Hau da, gutxieneko kalitatea izan behar du zabor organiko horrek.

### NOLA LORTU BEHARKO DUGU HELBURU HORI?

Helburu hori lortzeko, Eskualdeek Gobernuari plan xehea aurkeztu beharko diote (2012ko abendua baino lehen). Eta Nafarroako Gobernuak 3 aukera ematen ditu, eskualde bakoitzak bere metodologia aukera dezan: 5. edukiontzi irekia, 5. edukiontzi itxia, atez ateko sistema.

Esan beharra dago Nafarroan oso atzeratuta gabiltzala gai honekin, kontzientiazio txikia dagoelako eta inplikazio politikoa eskasa delako. Nahiz eta epea pasata egon, Sakanak eta beste lau toki-entitateek besterik ez diote aurkeztu bideragarritasun plana Nafarroako Gobernuari. Kezkatzekoa da gure Administrazioek ingurumenarekiko duten ardura falta.

### ZERO ZABOR POLITIKAK JARRI BEHAR DIRA MARTXAN

Lege eta zuzentarau guztiek diote, hondakinak egoki kudeatzeko, honako ierarkia aplikatu behar dela: prebentzioa, murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea. Eta soilik hauek lortu ezin direnean balorizatzea eta azkenik deuseztatzea.



### POLÍTICAS DE RESIDUO CERO

Todas las normativas al respecto indican que las administraciones competentes, en el desarrollo de las políticas y de la legislación en materia de prevención y gestión de residuos, aplicarán para conseguir el mejor resultado ambiental del triángulo invertido: lo principal es reducir el residuo que generamos, reutilizarlo y después reciclar.

## ¿Qué dicen las leyes?

La **Unión Europea** regula claramente qué objetivos deberían conseguir los estados, en materia de gestión de residuos:

*Por un lado, para el 2014 deberán desaparecer todos los vertederos.*

*Por otro lado, para el 2020 no se podrán incinerar los materiales reciclables.*

*Finalmente, los estados de Europa deben garantizar que en los pueblos y ciudades el 50% (por lo menos) de la basura orgánica se empiece a recoger selectivamente.*

Por otra parte, el **Gobierno de Navarra**, aprobó el 27 de diciembre de 2011 el **Plan Integral de Gestión de los Residuos de Navarra** (PIGRN).

El plan indica que debemos comenzar a recoger selectivamente el 50% (como mínimo) de los residuos orgánicos, y dicha materia orgánica no puede tener más del 10% de "impropio". Es decir, esos residuos orgánicos deben tener un mínimo de calidad. Para lograr este objetivo, las mancomunidades de Navarra debían presentar antes de diciembre de 2012 un plan. Para ello, el Gobierno de Navarra ha propuesto tres opciones: 5º contenedor abierto, 5º contenedor cerrado o sistema puerta a puerta.

Por otro lado, es preciso subrayar el retraso de Navarra en este tema, ya que existe un bajo nivel de concienciación y la implicación política es escasa. A día de hoy solo han presentado su plan la Mancomunidad de Sakana y otras cuatro administraciones locales.



# Sakanako birziklatze datuak egun

**S**akanan gaur egun jasotzen den zaborraren %24,27a bakarrik kudeatzen da gaika. Eta, gainera, kopuru horren ia erdia papera eta kartoia da (%45,22). Horrek esan nahi du gainerako gaien birziklapena txikia dela. Datu horiek oso eskasak dira Europako legediek ezartzen dutena ikusirik, eta batez ere Europako beste herrialde batzuetan gaika kudeatzen denarekin konparatuta. Gainera, Mankomunitateak ez du zabor organikoa aparte jasotzen.

**E**san daiteke gaur egungo sistemak goia jo duela, tratatua dagoela, eta ez duela balio ez legedia betetzeko, ezta ingurugiroari zor diogun errespetua bermatzeko ere. Eta arazo honi denon artean irtenbide zorrotz eta eraginkorra eman beharra diogu, gizakiok gero eta zabor gehiago sortzen baitugu. Horretarako, denon ardura eta inplikazioa behar da: herritarrena, legegileena eta politikoa.

## Sakanan gaika kudeatutako zaborra Porcentajes de reciclaje de Sakana

URTEA AÑO	BIRZIKLATUTAKO RECICLADO
2007	% 24,55
2008	% 24,62
2009	% 24,46
2010	% 25,04
2011	% 24,27



## Datos de reciclaje en Sakana a día de hoy

**D**e la totalidad de los residuos que se recogen hoy en día en Sakana, únicamente se gestiona selectivamente el 24,27% de los mismos. Además, casi la mitad de dicha cantidad corresponde a papel y cartón (45,22%). Estos datos son escasos a la vista de lo establecido en la legislación europea, y, sobre todo, si realizamos una comparativa con lo que se gestiona selectivamente en otros estados de Europa. Además, la Mancomunidad no recoge selectivamente los residuos orgánicos.


**E**ncima, en Sakana se aprecia una cierta tendencia a la baja si analizamos la evolución desde 2007 hasta hoy en día. Se puede decir que el sistema actualmente en vigor ha tocado techo, está bloqueado y no sirve para cumplir con la normativa actual. Tampoco sirve para garantizar el respeto que le debemos al medio ambiente. Y entre todos/as debemos dar una salida rigurosa y efectiva a este problema.

## Birtziklatzea: Amalurrari zor

### Gure zabor poltsaren %93a birziklagarria da

% 50	MATERIA ORGANIKOA
% 20	PAPERA eta KARTOIA
% 15	ONTZIAK / envases
% 8	BEIRA / Vidrio
% 7	BESTEAK / Varios

## El 93% de nuestra bolsa de basura es reciclable





## Manken helburu estrategikoak

Sakanako Mankomunitateak, arestian aipatutako legeen eskakizunak aintzat hartuz, ekainaren 26ko bilkuran honakoa onartu zuen: "hondakinen birziklapenari dagokionez, emaitza nabarmen hobeak lortzea, horretarako etxez etxeko bilketa zerbitzua ezarriz". Erabakia hartu zuen duela hogei urte inguru eskualdeko udal guztiek eman zizkieten eskumenak erabiliz, eta bertaratu ziren alderdi guztiak ados egon zirelako (BILDU, UPN, PSN eta hautagaitza independenteetako udal zinegotziak). Ez zen ez kontrako botorik, ez abstentziorik egon.

### HAUEK IZAN ZIREN MANKOMUNITATEAK EZARRITAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- Sakanan bereizita jasotzen diren hondakinen portzentajea %24,27tik %90era pasatzea.
- Oraingo bilketa selektiboaren eraginkortasuna hiru koiztea. Horrela, zaborraren tratamenduaren kostuak jaitsi egingen dira, eta herriarrak pagatzen dituen tasak ere jaitziko dira.
- Horretarako sistema bat garatzea.

## Objetivos estratégicos de la Mank

La Mancomunidad de Sakana aprobó en la asamblea del 26 de junio "en lo referente al reciclaje de los residuos, conseguir resultados notablemente mejores, estableciendo para ello el servicio de recogida puerta a puerta". Esta decisión fue tomada en virtud de las competencias que hace unos veinte años le dieron todos los municipios de la zona (estuvieron de acuerdo los/as concejales/as de BILDU, UPN, PSN y candidaturas independientes). No hubo votos en contra ni abstenciones. A continuación se citan los objetivos estratégicos establecidos por la Mancomunidad.

### OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

- Incrementar del 24,27% al 90% el porcentaje de recogida selectiva de residuos en Sakana.
- Triplicar la efectividad de la recogida selectiva actual. Para ello, se rebajarán los costos del tratamiento de los residuos. Del mismo modo, también se rebajarán las tasas que pagan los vecinos/as.
- Desarrollar un sistema mixto para ello.

# Atez atekoa: European sortutako puntako sistema

Etxez etxeko sistema Italian sortu zen, eta gaur egun oso herri handietan erabiltzen da: Milan, Novara, Torino, Napoli, Bologna, Erroma, Monza, Salerno... Katalunian ere 100 herri baino gehiagok dute ezarria etxez etxeko sistema, eta erabateko adostasun politikoa du. Mallorcako zenbait herritan ere erabiltzen dute. Europako beste eskualde askotan ere erabiltzen hasiak dira, eta ez bakarrik herri txikietan. Hainbat hiritan ere etxez etxe jasotzen dute zaborra: Bruselan, Namurren, Brujasen, Liverpoolen, Niornten.... Gerturago etorrita, Ovie-

don ere sistema hori erabiltzen dute. Mundu mailan ere erabiltzen da sistema hau: Australian eta Twainen, eta San Francisco hirian.

Herriotako datuak bilduta, Sakanako Mankomunitateak ondorio argia atera du: **etxez etxeok eta autokonpostajek besterik ez du bermatzen legedia betetzea**. Izan ere, organikoa biltzeko beste sistema batzuk ezarri ziren herrietako emaitzak ere aztertu ditu: Zarrautz, Azpeitia, Zumaia, Aretxabaleta... Eta emaitzek diote herri horietan ez dela %30-%35 baino gehiago jasotzea lortu,



Erroman etxez etxeko zabor bilketa sistema martxan dago.

nahiz eta kontzientziazio kanpaina zabalak egin. Katalunian, esate baterako, beste aukera batzuk alde batera uzten hasiak dira, emaitzak eskasak direla-

ko, eta etxez etxekoa ezartzen hasi dira, emaitzak bikainak direlako. Herri horietan %80-%90 birziklatzera iristen ari dira.



# Atez atekoaren ondorio ekonomikoak

## Costes económicos del puerta a puerta

Zabaldu nahi izan da atez ateko sistema garestia dela, baina uste okerra da hori. Esan beharra dago zaborren "bilke-ta" garestiagoa dela, eskulan gehiago eskatzen duelako, baina "tratamendua" askoz merkeagoa da, birziklapenaren bidea jorratzen delako. Hortaz, **ziklo osoaren emaitza merkeagoa da**. Mankomunitatearen Bideragarritasun Planeko estimazioaren arabera, sistema horrekin Sakanak 61.000€ aurreztuko lituzke urtean. Gainera, jakina da gaur egungo sistemarekin zaborren tratamendua gero eta garestiagoa dela, eta urtetik urtera tasak igotzen ari direla. Autokonpostajea eta konpostaje komunitarioa egin nahi duten sakandarrek, bestalde, %15eko hobaria izanen dute hemendik aurrera.

Sistema honek inguruaren **garapen sozioekonomikoa**

**sustatzen du**, hondakinak bertan kudeatzen direlako eta horrek lanpostuak sortzeko aukera ematen duelako. Europar Batasunak ezartzen duen legedia betebetean beteko balitz, Europan urtean 72 mila milioi euro aurreztuko lituzkeela estimatzen da, eta sektore horrek 400.000 lanpostu sortuko lituzkeela 2020 urtea bitarte.

Azken finean, produkzio eta **kontsumo ereduaren aldaketa eragiten du**, hondakinak ez dituelako "zabor" kontsideratzen, "lehengai" baizik. Hau da, hondakinen kudeaketa orekatua bultzatzen du: hondakinak **murritztea, berrerabil-tzea, birziklatzea**, beste **balorizazio** bat ematea, eta azken muturrean, eta beste aukerarik ez dagoenean, zaborra **suntsi-tzea**.



Bestalde, kontuan hartu behar da EUROSTATEk berriki egindako azterketa batean ondorioztatu duela Espainian gutxi birziklatzen dela eta zaborteak gehiegi erabiltzen direla. Espainia Europako beste herrialde batzuetatik oso urruti dago birziklapen-datuetan (Alemania, Luxenburgo, Belgika, Suedia, Suitza, Danimarka...).

Se ha querido divulgar que el sistema puerta a puerta es caro, pero eso es una creencia errónea. Efectivamente, la "recogida" de residuos es más cara, debido a que requiere una mayor cantidad de mano de obra, pero el "tratamiento" es mucho más barato, debido a que se recurre a la vía del reciclaje. Por ello, **el resultado del ciclo en su conjunto es más barato**. Según las estimaciones del Plan de Viabilidad de la Mancomunidad, con este sistema Sakana ahorraría al año 61.000 €. Además, es conocido que el tratamiento de los residuos mediante el sistema actual es cada vez más caro, y que las tasas están incrementándose de año en año.

Por otro lado, las personas sakandarras realicen autocompostaje o compostaje comunitario se beneficiarán de una bonificación del 15 %.

Este sistema **promociona e impulsa el desarrollo socioeconómico del entorno**, ya que los residuos se gestionan en origen y posibilitaría la creación de puestos de trabajo, sin que por ello el medio ambiente sufra ningún daño.

## El puerta a puerta: sistema puntero creado en Europa

El sistema puerta a puerta tuvo su origen en Italia, y hoy en día se utiliza en grandes poblaciones: Milán, Novara, Turín, Nápoles, Bolonia, Roma, Monza, Salerno... Igualmente, en Cataluña más de 100 localidades tienen implantado el sistema puerta a puerta, habiendo conseguido un consenso político total. Del mismo modo, en Mallorca también es utilizado en algunas localidades. En otras regiones de Europa ha comenzado a funcionar, y no solamente en localidades pequeñas. También en numerosas ciudades la basura se recoge puerta a puerta: Bruselas, Namur, Brujas, Liverpool, Niort... y sin ir más lejos, en



Oviedo también utilizan dicho sistema.

A nivel mundial también es utilizado este sistema en Australia, Twain y en la ciudad de San Francisco.

Tras recoger diversos datos en las citadas localidades, la Mancomunidad de Sakana ha llegado a una conclusión muy clara: **la recogida puerta a puerta y el autocompostaje son los únicos sistemas que garantizan el cumplimiento de la legislación sobre la materia**. Con otras alternativas no ha conseguido recoger por fracciones más del 30%-35% de materia, a pesar de que se realizaron amplias campañas de concienciación. En Cataluña han comenzado a implantar el sistema puerta a puerta, porque los resultados son óptimos. Hoy en día en dichas localidades están llegando a reciclar un 80%-90%.

*Si se cumpliera plenamente la legislación que establece la Unión Europea, se estima que en Europa se ahorrarian 72 millones de euros al año, y que este sector crearía 400.000 puestos de trabajo hasta el 2020.*

Por otro lado, un estudio realizado por EUROSTAT concluye que en España se recicla poco, y que se abusa de los vertederos.

# Alternatiba berdea erraustegiei

## La alternativa verde a las incineradoras

Gipuzkoako datu batzuk aztertzen baditugu, 2011ko birziklapen-tasa honako hau izan zen herrietan:

Etxez etxeko bilketa Puerta a puerta	5. edukiontzia 5º contenedor
% 87 Usurbil	% 29 Zarautz
% 82 Hernani	% 27 Zumaia
% 81 Oiartzun	% 27 Aretxabaleta

Hau da, etxez etxeko bilketa egiten den herrietan "errefusa" (birziklatzen ez dena) %10 eta %20 artean dago. Beste sistema duten herrietan, ordea, %70eko errefusa sortzen da. Eta errealitate hori zuzen-zuzenean lotzen zaio errefusa erraustegietan erretzearen politikari. Baina Sakana-ko gehiengo sozial eta politiko anitzak oso argi adierazi du erraustegien kontra dagoela, errauste-lantegietan dioxinak eta furanoak sortzen direlako, eta horiek minbizia eragiten dutelako. Eta oso kezagarria da ikustea nolako asmoa duten zenbait administraziok erraustegiak balorizatzeke eta indartzeko, interes politiko eta ekonomikoak tarteko.



**Gaikako bilketa = Birziklatzea = Osasuna**  
**Nahastutako bilketa = Kutsadura = Zabortegia edo errauste planta**

**Recogida selectiva = Reciclaje = Salud**  
**Recogida mezclada = Contaminación = Vertedero o incineradora**

**S**i estudiamos diversos datos de localidades de Gipuzkoa, en 2011 se obtuvieron las siguientes tasas de reciclaje: **recogida puerta a puerta** (Hernani % 82, Usurbil % 87, Oiartzun % 81); **5º contenedor** (Zumaia % 27, Zarautz % 29, Aretxabaleta: % 27). Esto es, el "rechazo" (lo que no se recicla) que se produce en las localidades en las que se realiza la recogida puerta a puerta oscila entre un 10% y un 20%. En cambio, en las localidades que tienen implantado otros sistemas, se produce un 70% de rechazo. Además, dicha realidad se encuentra

	4 edukiontzi (gaur egun) 4 contenedores (hoy día)	5 edukiontzi 5 contenedores	Atez ate Puerta a puerta
<b>Birziklapena</b> Reciclaje	% 28	% 32	% 80-90
<b>Zabortegira</b> Vertedero	% 72	% 68	% 20-10

intrínsecamente vinculada a la política de quema de rechazos en incineradoras. Pero hay que tener en cuenta que una mayoría social y política diversa ha manifestado con claridad que está en contra de las incineradoras, debido a que en dichas plantas se producen dio-

xinas y furanos, sustancias que provocan patologías cancerígenas. Por otro lado, es muy preocupante ver la intención de algunas administraciones por valorizar y reforzar las incineradoras, debido a intereses políticos y económicos fundamentalmente.



# Nola funtzionatzen du atez ateko bilketak?

## ¿Cómo funciona el puerta a puerta?

**H**ondakinak gaika biltzen dira, asteko egun jakin bakoitzean gai bat atera behar da. Atez ateko bilketaren klabea jatorrian bereiztea da, hau da, etxeetan gai ezberdinak ongi bereizi behar dira.

### MATERIA ORGANIKOA

Biltzeko hiru aukera ematen dira, herritar bakoitzak nahi duena aukera dezan: auto-konpostajea, auzo-konpostajea edo etxez etxeko bilketa.

Autokonpostajea egiteko lur eremua izatea derrigorrezkoa da. Lur eremua ez duenarentzat udalak hainbat auzokonposta gune jarriko ditu nahi duen guztiak parte hartzeko.

Ahalik eta jende gehien parte har dezan, auto edo auzoKONPOSTA egiten duten etxebizitzetara Sakanako Mankomunitateak zabor tasan %15eko hobaria aplikatuko die materia organikoa ez jasotzeagatik.

Udal honek lan berezia eginen du AUZO-KONPOSTAJEA sustatzeko eta indartzeko. Horretarako, guneak jarriko dira, informazioa eta laguntza eskainiko da; izan ere,

konpostaje komunitarioa erraza eta merkea da, eta zabor organikoa kudeatzeko oso bide interesgarria. Esan daiteke etxez etxekoaren eta ohiko kontenedorearen ateko zubia dela, emaitza onak ematen dituen.

**Materia organikoa honako lehengaiek osatzen dute: fruitu eta barazki hondakinak, haragi eta arrain hondakinak, arraultzak eta mariskoak, kafe hondarrak eta landare-hostoak. Jakiak gordinak edo sukaldatuak izan daitezke.**



### MATERIA ORGÁNICA

Para la recogida del residuo orgánico habría tres opciones: autocompostaje, compostaje comunitario y recogida dos veces por semana (lunes y jueves).

Para realizar autocompostaje es necesario tener un terreno (jardín o huerta); y para el compostaje comunitario el Ayuntamiento adecuará zonas para que los lakuntzarras participen.

Para que la población se anime, la Mancomunidad de Sakana aplicará una bonificación del 15% al recibo de la basura por

evitar la gestión de la materia orgánica.

Este ayuntamiento trabajará para fomentar el COMPOSTAJE COMUNITARIO. Para ello, se cederán zonas, se informará y ayudará. De hecho, el compostaje comunitario es sencillo y barato, y muy interesante para gestionar la materia orgánica correctamente.

**Esta fracción está compuesta por los siguientes: restos de fruta y verdura, restos de carne y pescado, restos de comida cocinada y de pan, cáscaras de frutos secos, huevos y mariscos, posos de café y restos de infusiones, tapones de corcho, papel de cocina y restos de plantas.**

	Astelehena Lunes	Asteartea Martes	Asteazkena Miércoles	Osteguna Jueves	Ostirala Viernes	Larunbata Sábado
<b>Goizez (etxeak) Mañana (viviendas)</b>	<b>Organikoa Orgánico</b>	<b>Ontzi arinak Envases ligeros</b>	<b>Papera kartoia Papel/cartón</b>	<b>Organikoa Orgánico</b>	<b>Ontzi arinak Envases ligeros</b>	<b>Errefusa Resto</b>
<b>Arratsaldez (Komertzio eta enpresak) Tarde (comercios y empresas)</b>	<b>Organikoa + ontzi</b>	<b>Errefusa Resto</b>	<b>Filma + Plastiko</b>		<b>Papera kartoia</b>	

### ONTZI ARINAK

Astean bi egunetan bilduko dira (esaterako: asteartea eta ostirala). Jasoko diren ontziak honakoak dira: latak, poltsak, plastikozko ontziak, porexpan-erretiluak eta brickak.




### PAPERA

Astean behin biltzen da (esaterako, asteazkenetan). Papera eta kartoia, aldizkariak, egunkariak, katalogoak, kartoizko ontziak... jasotzen dira. Ohikoena paperezko poltsan, kartoizko kaxan edo soka batekin lotuta uztea da.



### ERREFUSA

Astean behin batuko da (esaterako, larunbatetan). Birziklatu ezin daitekeen material inorganikoa da hondakin hori: hautsa, zeramika puskak, hautsitako ispiluak, barnizdun errautsak, paper plastifikatua, porexpan pieza handiak, material mixtoak...



### PIXOHIALAK ETA KOMPRESAK

Egunero atera daitezke.

### BEIRA

Iglu berdeetan botatzen jarraituko dugu.

### ALTZARI ETA BOLUMINOSOAK

Orain arte bezala Emausko traperoek jasoko dituzte. Mankomunitatera deitu behar da eta etxera etortzen dira bila, Sakanatik astean hirutan pasatzen dira.



### PILAK, DISOLBENTEAK, PINTURAK, MATERIAL ELEKTRIKOAK...

Garbiguneak jasoko ditu orain arte bezala. Lakuntzan: asteartean 9:00-9:30 plazan, eta osegunetan 13:15-13:45, herritik barna.

### OLIOA

Edukinontzi naranjan jasotzen jarraituko da (Santa Rita iturri azpian dago).

### LARRIALDI PUNTUAK

Bilketaren ordutegietara egokitzeko zailtasunak dituztenentzat edo ezohiko egoeretan aurkitzen direnentzat larrialdi puntuak egongo dira. Gune horietan, asteko egun guztietan eta eguneko edozein ordutan utzi daitezke hondakinak



### ENVASES LIGEROS

La recogida se efectúa dos días a la semana (por ejemplo: martes y viernes). Se recogen envases: latas, bolsas, envases de plástico, bandejas de porexpán y bricks.

### PAPEL Y CARTÓN

Se suele recoger un día a la semana (por ejemplo: los miércoles). Está fracción lo componen las revistas, periódicos, envases de cartón... Las formas más habituales de entrega son en bolsa de papel, caja de cartón o bien atados con un cordel.

### RECHAZO

Un día a la semana (por ejemplo: los sábados) será el que corresponda a los desperdicios, o, la fracción inorgánica no reciclable como: polvo de barrer, restos de cerámica, espejos rotos, colillas y cenizas con barnices, papel plastificado, porexpán en grandes cantidades, porexpan, materiales mixtos...

### PAÑALES Y COMPRESAS

Se pueden sacar todos los días de la semana.

### VIDRIO

No se recoge puerta a puerta, se sigue recogiendo en los iglúes verdes colocados en la vía pública.

### VOLUMINOSOS

Se recogerán como hasta ahora. Se debe llamar a la Mancomunidad y Traperos de Emaús pasará a recogerlos por casa.

### PILAS, DISOLVENTES, PINTURAS, MATERIAL ELÉCTRICO...

Se recogerán como hasta ahora. Punto limpio: martes 9:00-9:30 en la plaza y los jueves 13:15-13:45 de calle en calle.

### ACEITE

Se recogerá como hasta ahora, contenedor naranja situado debajo de la fuente Santa Rita.

### PUNTOS DE EMERGENCIA

Para las personas que tengan dificultades para adaptarse al horario de recogida y/o para las situaciones excepcionales se habilitan unos puntos de emergencia. En estos centros se pueden depositar las distintas fracciones cualquier día de la semana y a cualquier hora.

Si el punto de emergencia se ubica en alguna zona con presencia de personal municipal o vigilado por webcams se podrá reducir el efecto "anónimo" y mantener una calidad aceptable en los materiales recogidos. Dicho lugar será exclusivo para los usuarios domésticos.







# Materia orgánica bereiztea eta konpostatzea, aldaketaren giltza

## Separar la materia orgánica y compostarla, las claves de reciclar correctamente

EDUKIONTZI BERDEAREN OSAERA  
composición contenedor verde



AUTOKONPOSTAJEA SAKANAN



**K**ontenedore berdean isurtzen dugunaren %93a birziklagarria da. Deigarriena da zabor "nahasi" horren %58,8a material organiko ustelgarriak direla. Beraz, hortxe dugu zaborren kudeaketan aurrera egiteko behar-beharrezko giltza: zabor organikoa modu eraginkor batean aparte biltzea. Gainera materia organikoak konposta egiteko aukera bikaina ematen du, hau da, orain zabor bezala tratatzen dugun materia konpost bihur dezakegu. Organikoa bereizita jasotzea da, hain zuzen, europar, espainiar eta Nafarroako legediak ezartzen duten neurri nagusienetakoa, eta nahita nahiez guz-

tiok egin beharko duguna.

Aipatzekoa da Sakana azken urteotan borondatezko autokonpostajeak gora egin duela nabarmen, gero eta kontzientzia handiagoa dagoelako. 2011n 50.950 kg zabor organiko kudeatu ziren Sakana autokonpostajearen bidez. Beraz, argi dago administrazioek joera natural hori indartu beharko luketela.

**Materia organikoa kudeatzeko Sakanako Mankomunitateak hiru aukera jarri ditu mahai gainean: autokonpostajea, auzo-konpostajea eta atez ateko bilketa. Helburua ahalik eta materia organiko kantitate handiena konpostatzea litzateke.**

**E**l 93 % de lo que vertemos al contenedor verde es reciclable.

**A**ctualmente, el 58,8% de estos residuos "mezclados" que se recogen en Sakana son materiales de descomposición orgánica, es decir materia orgánica. Por tanto, esta es la clave para mejorar en la gestión de los residuos: recoger selectivamente de un modo eficiente la materia orgánica. Esta es precisamente la medida que ha de implantarse para cumplir con las normativas europeas, estatales y navarras.

Por otra parte, es preciso señalar que en los últimos años la cantidad de autocompostaje realizada voluntariamente se ha incrementado de una forma notable en Sakana, debido a que cada vez hay una mayor conciencia. En 2011 se gestionaron mediante compostaje 50.950 kg de residuos orgánicos en Sakana. Las administraciones deberían impulsar esta tendencia natural.

**La Mancomunidad de Sakana plantea tres posibilidades para recoger y tratar la materia orgánica: el autocompostaje, el compostaje comunitario o la recogida puerta a puerta.**

# Sakana: autokonpostajea egiteko aukera ezin hobea

## Sakana: gran potencial para el autocompostaje

**S**akanak eta bereziki herri txikiek autokonpostajea egiteko aukera paregabea daukate. Izan ere etxebizitza ugari lur eremua dute ondoan (ezinbestekoa konpostajea egiteko). Lakuntzan, zehazki, 635 etxebizitza daude eta horietatik 241ek (% 38ek) dute lur eremua ondoan. Sakanako Mankomunitateak hurrengo astean aukonpostajea bultzatzeko kanpaina jarriko du martxan, lur eremua duten guztiei gonbitea luzatzeko.

Beheko taulan ikus daiteke 2012an konpostajeari esker Tuterara eraman behar ez zen materia organiko kopurua eta horrekin aurreztu zen dirua. Horrez gain, ageri da Sakanan 2.828 konpostagailu banatuko balira zenbat aurreztuko litzatekeen.

**S**akana tiene un gran potencial para llevar a cabo el autocompostaje puesto que son numerosas las viviendas que tienen terreno ajardinado (indispensable para la colocación de composteras). En Lakuntza el 38% de las viviendas posee terreno ajardinado (241 de 635 viviendas). Es por ello que la Mancomunidad de Sakana pondrá en marcha una nueva campaña para animar a la población a autocompostar.

En la siguiente tabla se observan los datos referentes a los kilos de materia orgánica que se han evitado llevar a Tudela y por tanto el ahorro que ha supuesto en el 2012, y el que supondría repartir en Sakana 2.828 compostadores.

	Familia kopurua Nº de familias	Konpostatuako organikoa Orgánico compostado	Tratamenduaren kostua Coste estimado tratamineto (planta de Culebrete-Tutera)	
Erreal/Real 2012	319	69.542 kg	80,45 €/tn	-5.594,65 €
Potentziala Potencial	2.828	1.231.384 kg	80,45 €/tn	-99.064,84 €



konpostagailua / compostador

### KONPOSTAREN ONURAK

- Zabortegietara doan **materia organiko kopurua murrizten du.**
- Ongarri kimikoen erabilera murrizten du.
- **Ureztaketa ura aurrezten da,** konpostaren erretentzio gaitasunari esker.
- Landareentzat beharrezkoak diren **elika-gaiak eskuragarri** bilakatzen ditu.
- **Hondakinen garraioak suposatzen duen gastua murrizten da.**
- Eguneko edozein ordutan eta egunetan atera daiteke.
- Zaborren tasetan %15eko hobaria izango du.
- **Konposta eskuratzen duzu.**

### VENTAJAS DEL COMPOSTAJE

- Se **reduce** la cantidad de **materia orgánica** que se lleva al vertedero.
- **Reducción** en el **uso de abonos químicos.**
- **Ahorro en agua de riego,** gracias a la capacidad de retención del compost.
- **Facilita los nutrientes necesarios** a las plantas.
- **Reduce el coste** que supone el transporte de residuos.
- **Se puede sacar a cualquier hora y día.**
- **Reducción del 15%** en tasas de basura de la Mank.



auzo konposta / compostaje comunitario



# Nola egingo dugu Lakuntzan?

## ¿Cómo lo haremos en Lakuntza?

**S**akanako herri bakoitzak hainbat kontu erabaki behar ditu: organikoa nola bildu edo tratatu, bilketa puntuak non kokatu, bilketa puntu horiek nolakoak izanen diren (zintzilarioak, gantxoak,...), emergentzia gunearen kokalekua, kaleko papelerontziak jarri edo ez...

Lakuntzako Udalaren Atez Ateko Lan-taldeak kontu horien guztien inguruan proposamena garatzen ari da. Hasierako proposamena hurrengo litzateke:

**-BILKETA PUNTUAK:** 61 bilketa puntu jarriko lirateke herrian zehar, poste moduko batzuk jarriko lirateke.

**-ORGANIKOA:** hasiera batean mahai gainean dauden hiru aukerak eskainiko dira: auto konpostajea, auzo-konpostajea eta kuboaren bilketa. Hala ere, ahalik eta konpostaje gehiago egin ahal izateko bitarte-

koak jarriko lirateke. Zazpi herri lur eremutan auzo-konpostajea egiteko aukera aurreikusten da.

**-ESTRUKTURANTEA PILATZEKO ZONALDEA:** konposta egin ahal izateko materia lehorra behar da, hosto lehorrak, abarrak, kimatze edo inauste lanen gerakinak... Hilerrri ondoko herri lurrian konposta egiteko materia estrukturantea pilatzea aurreikusten da, txikituta, behar duenak hartu ahal izateko.

**-EMERGENTZIA GUNEA:** eskola laboraletan kokatuko litzateke. Gune hau emergentzietarako erabiliko da soilik.

**-KALEKO PAPERONTZIAK:** daudenak egokitzea aurreikusten da, gune bakoitzean 4 frakzio bota ahal izateko. 8 gune aurreikusten dira.

*Proposamena zehatzago azaldu eta aportazioak jasotzeko Lakuntzako Udalak 3 bilera informatibo-partehartzaille deituko ditu. Bilera hauen helburua hasierako proposamena azaltzea da eta bidenabar dauzkagun zalantzak argitu eta aportazioak jasotzea. Modu honetan Mankomunitateak otsailaren 11n egingen duen batzarrerako (bertan hartuko dira erabakiak) gutxieneko informazioa izateko moduan egonen garelarik.*



*Konposta ona egiteko sekretu bakarra dago: materia lehorra eta hezea ondo nahastu behar dira.*



*El Ayuntamiento de Lakuntza convocará 3 sesiones informativas-participativas el próximo 8 de febrero. En estas sesiones se explicará en profundidad la propuesta inicial, pero también servirá para aclarar dudas y recoger aportaciones.*

**C**ada pueblo tiene que decidir varias cuestiones referentes a la implantación del sistema de recogida de residuos puerta a puerta: cómo recoger el orgánico, definición de los puntos de recogida, sistema de los puntos de recogida (colgadores, ganchos,...), ubicación de la zona emergencia, ubicación de las papeleras en la calle...

El grupo de trabajo creado para la implantación del puerta a puerta en Lakuntza ha desarrollado una propuesta inicial que se resume de la siguiente manera:

**-PUNTOS DE RECOGIDA:** se prevee la colocación de 61 puntos de recogida mediante postes donde colgar los residuos.

**-MATERIA ORGÁNICA:** se plantea impulsar el autocompostaje y el compostaje comunitario, pero también quedará la opción

de la recogida de la materia orgánica puerta a puerta. Para ello se han identificado 7 zonas donde ubicar composteras comunitarias.

**-ZONA PARA RECOGER MATERIA ESTRUKTURANTE.** La materia estrukturante es imprescindible para la realización del compost. Se compone de restos de poda, hojas secas... Se prevee habilitar una zona al lado del cementerio para que todo aquella persona que lo necesite pueda coger materia estrukturante.

**-ZONA DE EMERGENCIA:** se ubicaría en la zona de las antiguas escuelas laborales.

**-PAPELERAS:** se prevee la ubicación de papeleras con cuatro cavidades en 8 zonas del pueblo. Se plantea adaptar las papeleras ya existentes.

HONDAKINEN BILKETA SISTEMA BERRIA:  
LAKUNTZARAKO PROPOSAMENA. Nola egingo dugu Lakuntzan?

## BILERA INFORMATIBO PARTE-HARTZAILEAK otsailaren 8an udaletxean

17:30 Herriko plaza, Madalen, Mañueta, Kañada, Txorrokota kaleetako bizilagunei zuzendua

19:00 Uriz, Abarrategi, Errotabide, Larrañeta, Ermiñeta, Larraina kaleetako bizilagunei zuzendua

20:30 Mikel Arregi, Aldababide, Aldaia, San Anton, Itxesalde, Beriain kaleko bizilagunei zuzendua

ANTOLATZAILEA: Atez atekoa lantzeko lan-taldea, Lakuntzako Udala

NUEVO SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS:  
PROPUESTA PARA LAKUNTZA. ¿Cómo vamos a hacerlo en Lakuntza?

## SESIONES INFORMATIVAS PARTICIPATIVAS 8 de febrero en el ayuntamiento

17:30 vecinos y vecinas de las calles: Herriko plaza, Madalen, Mañueta, Kañada, Txorrokota

19:00 vecinos y vecinas de las calles: Uriz, Abarrategi, Errotabide, Larrañeta, Ermiñeta, Larraina

20:30 vecinos y vecinas de las calles: Mikel Arregi, Aldababide, Aldaia, San Anton, Itxesalde,  
Beriain

ORGANIZA: comisión puerta a puerta, Ayuntamiento de Lakuntza

### INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN:

[www.sakana-mank.com](http://www.sakana-mank.com)

<http://hondakinak.sakana-mank.com/>

[www.sakanaturismo.com](http://www.sakanaturismo.com)

[www.nilsa.com](http://www.nilsa.com)

<http://www.usurbil.net/eu/zerbitzuak/246?menu=ate>

[www.hernaniatezate.org](http://www.hernaniatezate.org)

[www.oartzunatezate.org](http://www.oartzunatezate.org)

[www.hondakinekinselektiboakgara.com](http://www.hondakinekinselektiboakgara.com)

[www.portaaporta.cat](http://www.portaaporta.cat)

[www.eea.europa.eu](http://www.eea.europa.eu)

### KONPOSTAJEA BIDEOAK

<https://www.youtube.com/watch?v=KuqFSz9IB0Q>

<https://www.youtube.com/watch?v=dM74tdn0os0>

### IRITZI ARTIKULOAK

[http://paperekoa.berria.info/harian/2012-11-](http://paperekoa.berria.info/harian/2012-11-28/016/001/gehiago_kostako_da_liskar_politikoak_gainditzea_jendea_atez_atekor_a_ohitzea_baino.htm)

[28/016/001/gehiago\\_kostako\\_da\\_liskar\\_politikoak\\_gainditzea\\_jendea\\_atez\\_atekor\\_a\\_ohitzea\\_baino.htm](http://www.noticiasdenavarra.com/2012/11/30/opinion/tribuna-abierta/el-largo-viaje-de-los-biorresiduos-en-navarra)

<http://www.noticiasdenavarra.com/2012/11/30/opinion/tribuna-abierta/el-largo-viaje-de-los-biorresiduos-en-navarra> (Nafarroako Greenpeaceren balorazioa)

[http://www.consumer.es/web/es/medio\\_ambiente/urbano/2011/03/27/199479.php](http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2011/03/27/199479.php)

<http://www.argia.com/albistea/auzolanean-zaborrik-ez-eta-konpost-hobea/>